



ZER
ALDIZKARIA

448. zenbakia
2018 LORAILLA

Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com



Lekeitiar
erraldoia
Resurrección
María de
Azkue III

EZAGUTU **DITUDAN** **AITA SANTUAK**

Txomin Garmendia

Prantzisko I



Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2017-2018 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 50. IKASTAROA
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 9an

**50. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 9 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



Lekeitiar erraldoia Resurreccion Maria de Azkue III


Kludio Barroeta

Eliz musikagintzan jarraitzen dau Azkuek: Jesusen Biotzari Oiuak (1899), Felipe Pedrell musikagille ospetsuaren goramena merezi izan ebenak. Done Joseperi bederatzaurrena (1900). Arrosario osobat, 3 eta 4 aotsetarako Bandaren laguntzarekin, Goikoetxea adizkideari zuzenduten deutsona, Ereserki batzuk etabar; areitatik asko separata gisa edo “La Voz de la Musica” Burgosen Federico Olmedak kale-ratzen eban aldizkarian agertu ziran. Wagneren lanak jotzen dauz pianoan eta beronen itzalpean asten dau leen saio sinfonikoa. Berak gogoratzen daukunez 1901ean Kanpion eta Karlos Gortazarrekin jotzen eban pianoan Wagneren Maisu Kantariak opera. Garai aretan musikatu eban Lamindano poema lirikoa, Karmelo Etxegarairen textuaz baliatuz, lau gizonen aots eta orkestarako prestatuta. 37x28 zentrimetorako 70 orrialdedun koaderno baten dago.

Berrogei urte ebazala erabaki eban European musika ikastea. Toursera joateko da. Iztegiaren argitaratzea dala ta, eta Frantziako egoitzaz baliatu nai dau Vicent Díndyren Schola Kantorum dalakoan konposagintzako ikasketak egiteko. 1904.eko Urtarrillaren 4ean gutun baten diñotso ikastaroa Urtarrillaren 4ean asiko dala. Eta gutunean ikusten danez, ikastaroa asten. Beste bi euskal gazteakin aurkitzen da apopiloetxe berean, Jose Maria Usandizaga eta Jesus Guridirekin; irurak bizi dira Saint Jacques kaleko 269.zenbakidun etxean.

Iztegiaren argitarapena burutzen dauenean Bruselara jotzen dau, Belgikako iriburuko Kontserbatorioan 1906-1907 ikastaroa egiteko.

Euskalerra melodiak artzen dauz sarritan koaderno andi batetan egiten dauzan kontra puntu eta fugako ikaskizunak idazteko. Azken arieketak 1907.eko data eroan. Baña Azkueren elburua Alemania da: 1906.eko Urriaren 4an alemanezko leen ikasgaia emon eban Ikasbide entzutetsuaren egille zan K.F.Ritter jaunaren etxean. Koloniarra joatea erabaki eban Stratesser irakaslearekin armonia eta kontrapuntua ikasteko. Bruselan bertan





Rhin ibaialdeko Gidaliburu turistiko bat erosi eban Kolonia-ko hoteletatik batzuen batzuk azpimarkatuz. Baña Iraillaren 15ean iriburu onetara eldu zanean Seminarioan ostatua lortu eban eta andik joaten zan Konserbatoriora. Ricardo Wagner zan aspalditik Azkueren musika erdua eta aren musikalanen jotaldien barri izateko Egunkari bat erosi eban. Kolonian bertan izan eban 1908.eko Urtarrillean, Wagneren opera batzuk entzuteko parada: Rhineko Urrea, Walkiriak, Sigfrido, Jainkoen itzaltzea, Tristan eta Isolda eta beste musikari batzuen operak, ots, Mozart, Verdi, Auber, Mascagni, Leoncavallo, Marschner etabar.

Ordurako egiña eukan Azkuek 1907an bere bigarren lan sinfonikoa, Daniel Oratorioa aots bakar, abesbatz eta orkestarako. Euskaltzaindiko Artxiboan gordetzen dana pianorako partitura da 31x24 zentrimetrodun koaderno batetan, eta orkestarako partitura Kolonian geratu zalakoan gagoz.

Koaderno berean idatzi ebazan Azkuek beste musikalan batzuk: Subtuum presidium, abesbatz, organo eta orkestarako, Meditacion sin preludios para organo, Andante religioso bi-bolin eta organorako (1908, Otsailla) Der Ritter, klabe eta tenorentzat (1908, Martxoa) Piezas bosquejadas :lau tronpatarako, piano sonata baterako (1907.10.2) Laukotera-ko sonata, Fuga baterako, Aridun Laukotera-ko. 1909.eko Apirilean beste poema sinfoniko bat musikatu eban, Andre Urraka, aots bakar, abesbatz eta orkestarako. Euskaltzaindiko Artxiboan lan onen partitura bi gordetzen dira bata 206 orrialdedun liburu andi batean idatzitakoa, euskerazko ta gaztelaniazko textu-ekin orkestarako partituran, eta beste 61 orrialdedun koaderno txikiago batean. Poema onen ideia Karmeko Etxegarai jaunak aurkeztu eutson Anbotoko Dama ardatz zalarik.

Amar urte lenago, berak diñoskunez, musikatu eban Lamindano poema lirikoa birmoldatzen dau urte bereko Maiaztean. 1909.eko Maiaztearen 2an antolatzen dira Colonian Lore Jokoak eta sari bat irabazten dau Azkuek; baña ez dakigu zein izan zan sari ori merezi eban lana. Dakiguna zera da, bere ikasleei esaten eutsela Burges musikagille eta irakasleak” Eskuartean zer dakarren dakien maisu eta musikagille benetakoa dozue zuen lurraldean”

Musikako estudioak burutu ebazanean eta Koloniako Nazioarteko Eukaristi Batzarra bukatu zanean Lekeitiora itzuli zan Azkue. 1910.eko Udabarrian estrainatu ziran Bilbon



Usandizagaren Mendi Mendian eta Guridiren Mirentxu operak. Eragin andikoak izan ziran Azkueregan eta euskal opera bat konposatzeko zirikatatu eben. Alan sortu zan bere iradokidemenetik Ortzuri, iru ekitaldietan opera. Minzorrotz personaia antzetzten dau kontraltoak eta au izan zan Azkuek operari emon eutson leen izenburua. Gero sopranoaren izena emon eutsan izenburutzat. Baña Arriaga antzokian estrainatu zanean, 1911.eko Ekainaren 13an, leen ekitaldia soilik antzetztu zan Itsasora izenburuarekin, Jesus Guridiren zuzendaritzepean. Artxihoan gordetzen dan pianorako partitura 39,5x28 zentimetroko 127 orrialdedun liburu batetan dago. Orkestarako partitura 45x34,5 zentimetroko iru tomo andietan gordetzen da. Opera onetan Wagneren tankera ikusi ebenek, atsegingarritzat onartu eben leen ekitaldiaren antzespene,baña urte bete lenago Usandizagak eta Guridik lortu eben arrakasta ezin eben itzali,auen operak atsegingarriagoak izan ziralako entzule arruntengan, orkeztatzioaren meritua baño sentimentuari geago begiratzen eutsoelako.

Baña Azkuek ez eban biderik aldatu eta Gainzabalgo eiztariak, Zarautzeko Euskal

jaietan saria irabazi eben bere antzerkitxua, gidotzat artuz. 1911.eko Abenduan asi zan opera barri bat konposatzen, ots, Urlo, ia urte biko lana emongo eutsona. Iru konposakera burutu ebazan Azkuek opera au egiterakoan: bata pianorako 34x27 zentimetroko 161 orrialdedun koaderno batetan dagoena, euskerazko textoa daroana, eta gaztelaniazkoa gero lapitzez geitua; bigarren konposakera orkestarako egiña da, baña es da osorik gordetzen Artxihoan koaderno bi baizik:

Preludio eta leen bi ekitaldiak 359 orrialdetan eskuz idatzirik dagoz; irugarren konposakera, eta, azkena 34x26 zentimetroko iru tomo andietan dago, 664 orrialde eskuz idatzita guztira. Iru izkuntzetan dago, euskeraz originala eta itzulpenak gaztelaniaz eta alemanieraz. Jose Maria Arroita-Jauregik eta Melania Fischer andereñoak egiñak. Aots eta pianorako partitura Alemanian argitaratua izan zan 1914an, 349 orrialdun tomo batetan.

Urlo antzesteko aurkesleen artean asi zan Azkue 1913.eko Abenduan. 1914.eko Apirillaren 4an azaldu ebazan Eloi Garaik





apaigarrien aitzinkontuak. Eta azkenez Bilboko Campos Eliseos antzokian estreinatatu zuen opera 1914.eko Maiatzaren 14ean, Lamote Grignon zuzendaria zalarik eta Bartzelonatik ekarritako orkestra laguntzarekin. Entzuleentzat ez zuen berak uste eban beste atsegingarri izan, naiz eta Juan Carlos Gortazar adizkideak kritika goresgarria egin: orkestazioko aurrerakuntzak, Ortzurin baño konposaketa askeagoa ikusten ebazan, baño akatsak be bai: melodia jaio barriak garaipenik gabe iltzen dauz. Ogeita bost milla pezeta galdu ebazala estrainu onegaz aitortzen eban Azkuek eta galtze au ikusi ostean Loiolako Konbentura joan nai izan eban.

Opera biak nai izan ebazan birrantzeztu gerraondoan Bartzelonako Liceo Antzokian, baño Juan Mestres, Antzokiaren zuzendariak naiz eta unkituta egoala opera biekin iragarri, 1941.eko iraillaren 30eko gutun batetan Azkueri idatzi eutsen ez ebalaba inor billatzen antzespenerako eta partiturak itzuli bearrean egoala. 1900 eta 1914 tartean musika sinfonikarako Lamindano eta Andra Urraka Poemak, Daniel Oratorioa, eta Ortzuri eta Urlo Operak emon euskuzan Azkueren amets sinfonikoak onegaz amaitu ziran.

Azkueren musikariaren ikuspegi orokor bat emoteko zera esan bearko da: denbora askotan konposetako irakaskuntza emon eustsela ainbat fraideei batez be Begoñako Karmeloan. Euskal musi-

karien biografiak be idatzi ebazan Joakin Peña argitarazlearentzat eta aipatutako itzaldietatik aparte, Euskal Musikaz artikulua bat, Los Vascos en la Nación Argentina izenburuko liburu eder batetan Jose R. Uriartek 1916an Buenos Airesen argitara emon ebana.

14. Azkue izkuntzalaria

Au da izatez on Resurreccion Maria Azkueren izaeratik geien aztertu dan arloa eta osperik geien emon dautsana, eta bere bizitza guztia bete eban ekintza, ain zuzen, izkuntzaritzako ikerketekin asi ebalako ogibideko bizitza 1888an. Arlo onetan izan ebazan gañera bere arreman personaletatik gailenak eta Euskaltzaindiaren sortzaille eta leen buru izan zuen 1919.etik 1951 ean il arte. Euskal aberrienganako izan eban maitasunaren ardatza euskerazko ikerketak eta argitalpenak izan zirala esan geinke, naiz eta bertan naigabeak aurkitu, zeren izkuntzaritzaren iraultza baño len asi ebazan bere lanak, mende onen asieran. Azkue izkuntzalaria aztertzerakoan, iru alderdi bereziko daukaz: gramatikaria, leen urteetan, lexikografia, mendearen leen bi amarraldietan, eta akademiko araugillea irugarren amarralditik aurrerantzean.

15-Azkue gramatikaria

Euskerazko Katedratikoa zenez, bizibideko eginkizunek Euskal Izkindea edo Gramatika 1891ean Jose Astuiren moldiztegian inprimatzera beartu eben. Zazpi urte leenago 1884an Arturo Kanpionek argitara emondako Gramatika izan zuen legez, Azkuena be, "leen alaba eskasa" berak deitzen ebana, larritasun aberkoi baten fruitua izan zuen. Beste merezimendu batzuen artean aipagarria zera da, euskeraz lendabizi idatzitakoa dala eta ordurarte ezezagutua zuen gramatikazko terminologia barri bat sortzera beartu eban Azkue ekintza orrek; izkuntza berezi ori ikusirik, Edward Spencer Dodgson inglesak Baskuence izenarekin bataiatu eban,

sortzaillea minduz, jakiña. Leen Gramatika au egituratzeko Azkuek edaten dauzan iturriak Astarloa, Juan Mateo Zabala frantzizkotarra eta Arturo Kanpion dira. Euskalkietaz eta gramatikaz Bonaparte Printzeak egindako lanak ez deutsoe oraindik eragiñik egiten Azkuek euskeraren gramatikaz daukon pentsamoldeari, geroago ezagutuko dauzelako arein lanak. Astarloagandik artuten dau Azkuek aurreritzi bat, ots, euskera izkuntza logiko bat dala eta gramatikazko arauak salbuespen bagekoak dirala. Eta izkuntza mintzatutik ies eginda, izkuntza literatitotik ataratzen dauz ondorioak, benetan mintzatzen izkuntzaren arauak kontutan artu gabe. Garai aretan au zan izatez gallentzen zan pentsamoldea, aurreko balaunaldian, ots, 1870.etik 1880 arteko amarraldian ikerketan ebizan neogramatikariak azterketa eskematikoetan ebiltzalako. Sasoiko fruitua da beraz Azkuek orduan emoten deuskuna, baña akats zarrago batetik ezin dau ies egin: Astarloa durangarraren obezintasun ideiatatik aurki.

Geroagoko lanetan, errira eta izkuntza mintzatu bizira urbiltzen danean, Astarloa ta Zabala alde batera izten dauz eta Bonaparte eta beste euskalarien ekarpenekin baliatzen da, Euskaltzainkideenak tartean diralarik, eta gramatikari lez bilaka bide batetik doa Euskal Morfologia lan andira eldu arte(1923) eta gero separata gisa argitaratzen dau 1924an Euskal Argitaletxeak. Eta laburrean nabaritzen da bilakera ori Azkuerengan. 1896an argitaratzen dau bere Ortografiarako Proposamena eta Bizkaiera ta Gipuzkera ikasteko jardunbidea; azken oneri 1898an Gaien Argibide bat geituko deutso. Azken biak Astuik argitaratuko ebazan Bilbon. Euskalzaleko moldiztegian argitaratu ebazan 1897an Bizkaieraz alkarrizketan ekiteko Eskuliburu bat 316 orrialdeduna 1896.eko data eroan arren 1897.urtekoa dogu Euskera 120 ikasgaietan; oraintasu arte lan au Tomas Jose Epalzarena

zalakoan gengoan baña Azkuena da beste idazlan batetan frogatzen daben lez (“El fondo Bonaparte de Azkue B iblioteka”, Iker-2. Pierre Lafiteri Omenaldia).

Mendearekin batera zirudien il zala Azkue gramatikari edo obe esateko euskeraren metodologoa; baña ezan olan gertatu, zeren eta jarraiean ikusiko dogun lexikografia lanak burutu ostean, eta ikusi doguzan folklore eta musikazkoak amaitu ebazanean, sortzen da barrero izkuntzaren pedagogo 1917an: Erriko Euskera ikasteko Laburpen erraza, 174 orrialdedun liburua leen argitalpenean Bilbaon Garmendiak inprimatzen dauena eta gero bigarrean Euskal Argitaletxeak 1932an. “Leen alaba eskasa”ren eskema idealistak bertan bera itxi dauz ordurako Azkuek eta Euskaltzaindia sortuta ondorengo estudioak elikatuko dabezan erriko elementuak dakartza lan onetan.



Baserritarra eta txerrena

Asier Legarreta (Txerren)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2017ko sari leiketa. lagarren saria

Txikerra nintzela, aittitte eta amomamaren etxean bizi nintzan. Udabarrarian eta udagoiengan bearra egoan eta ez genduen astirik izaten kontuak kontetan ibilteko. Baina negua elduten zanean, bekosuaren ondoan izaten gintzezan kontu kontari, saratsaren mukurrak sutan egozala suteko berotasunean.

Neguko arratsalde ilun eta euritsu batean, aittittek olan kontatu eustan ipuin au:

“Mungia aldeko baserri baten bizi zan gizon aitatu bat. Baserritar erne eta azkarra benetan! Asko dira aren egitsariak. Ona emen bat:

Lugintzan arratsalde bateko zeregiñak bete ondoren abiatu zan etxerantz: baina, bat-batean agertu jakon solo-erdian ikatz-bizizko metatxo bat, eta metatxoaren gañean, patxadan jesarrita, txerren txiki ta baltz bat. Arritu zan mungiarra.

— Zer dok ori! Txerrena txingar gañean! Ikusi bear dogu ba, ea zer dion.



Ta beldur barik urreraturik, olan diotso:

— Eup! Bagagoz?

— Bai, eta ederto egon be metagañean jesarrita—erantzuten deutso txerrenak.

— Altxor domutsuren bat izango dok txingar-metatxo orrrek, jakina?

— Domutsua! Baita benetan. Ik iñoiz ikusi dokazen zillar ta urre guztiak baiño ogasun geiago dekok txingar-meta onek.

— Baleike!...Ba, altxor ori nirea dok, neure soloan aurkituten dalako.

— Irea izango dok solo onetako lurra-
ren urte biko etekin erdi-
ja emoten badoztak.

— Ogasun bearrian aurkituten al aiz alan da ze?

— Ez: Bajeukoak dirua pranko, baina lur emoitzak atsegin jatazak. Ixil-alditxoan izan eban baserritar-
rak: eta buruan azka egin ostean olan erantzun eutson txerrenari:

— Ondo dagok: baina, lur-etekiña bannadu bear dogunian asarrerik izan ez dagigun, orantxe bertan egingo dogu banaketea: Iretzat lur gañean aurkituten dana, eta niretzat lurpekoa.




Ontzat artu eban txerrenak baserritarren erabagia, ta joan zan esandako sasoi arte agurtuaz.

Baserritarak, poliki oldoztu ostean, erein ebazan azenarioak.

Eldu zan izendatutako garaia, ta agertu jakon baserritar txerren baltza, eta esan eutson:

— Tira, non dira nire urte onetako etekiñak?

— Orra or, solo guztia bete bete— erantzun eutson baserritarak besoak zabalduaz.



Baina txerrenak etzeban aurkitu lugañean orri orizka ta simelak baiño: ta baserritarrak poz eta atseginez atara ebazan lurpetik azenario guri-guriak.

— Zoriona izan dot aurten—esan eutson txerrenak—baina ez dot izango barriro. Datorren urtean lur-gañekoak izango dozak iretzat, eta lurpekoak niretzat.

— Ondo jauk—erantzun eutson baserritarrak.

— Baina, texerrena joan zanean, azenario orde z garia erein eban. Eta biltzeko garaia eldu zanean, ebagi ondo-ondotik eta eraman ebazan etxera galburu ta lasto guztiak.


Agertu zan txerrena, bere lur etekiña eroateko ustez, baina etzeben aurkitu so-loan ezertxo be sustraiak baiño, eta asarratuta eta minduta bota eban bere burua aitz-tontor batetik bera.

Baserritarrak parre-egiñaz olan esan eutson:

— A zer iruzurra eroan dauen! Ori egin bear jake luki maltzur orreei.

Zein lasai eta zoriontsu beraganandu eban txerrenak itzitako altxorra”.

Aittitten kontu onek bizitzan arlo askotarako balio izan deust. Ez dot iñoz aztuko aittittek kontatutakoa. Beti izango dot eta gogoan. Eguneroko bizitzan aurkituten diren zailtasunak eta lagun berekoiak ekiditen lagundu deustan irakaspena neugaz daroat biotz barrenean.





Pio XII (1939-1958)

Pio Amabigarrena zala
Aita Santuan graduan,
esaten zuten aita oberik
ezin zeikela munduan.
Da gizarteak an edo emen
nola beti gerra duan;
pakean izar dizdilaria
bera izandu genduan.

Milla pasata bederatzireun
ogei eta emeretzi,
Batikanoak gizon onekin
etzun gutxi irabazi.
Gerratatik zer etorriko zan
nai zigun adierazi;
dotriñ ederra erakusten zun,
guk ez genduan ikasi.

EZAGUTU DITUDAN AITA SANTUAK

Txomin Garmendia



Juan XXII (1958-1963)

Milian ondoren bederatzireun
berrogeita emezortzi,
aita on ura goratu gabe
ezin genezake utzi.
Bost urtean iraun zun arren
etzuan egin lan gutxi;
eliz berri bat nola bear zan
garbi zigun erakutsi.

Zartuta zegon gure eliza
jarri nai zuan gazterik,
etzitun maite garai bateko
oiturik eta jazkerik;
Kontzilioa martxan jarri zun
etzun baztatu euskerik;
arek ainbeste egindakorik
izan ote da besterik?



Paulo VI (1963-1978)

Kontzilioa bukatu gabe
Juan Ogeita Irugarrena,
il zan da Paulo Seigarrenak
artu zuan ondorena.
Ziartuenik Juanek bezin zabal
etzun izan jarraipena;
diparentzia legezko baita
gizonengan dagoena.


Paulo Seigarrena amabost urtez
izan genduan gidari,
munduan zear ibilli ere
jasoaz txalo ugari.
Kontzilioa martxan jarri zun
eta eskerrak berari;
eliz eder bat uzten ziola
urrena zatorrenari.



Juan Paulo I (1978-33 egun)

Juan Paulo Lenan irripar ura
goxoa bezin samurra,
ogeita amairu egunetara
izan zan bere agurra.
Eriotz ura nola izan zan
ez dabil kontu ziurra;
norbaitzuk il ote zuten ere
badago naiko zuzmurra.

Batikanon ere sartu liteke
etsaiaren atzaparra,
gauz asko ixillik gorde zirala
dago aitortu bearra.
Eta tarteko izan liteke
diruak duan apaiza;
bear bada noizbait garbituko da
eriotz aren negarra.



Juan Paulo II (1978-2005)

Milla beratzireun irarogeita
emezortziko urtian,
Juan Paulo Bigarrena gendun
Batikanoko aulkian.
Aita Santu txit ibiltaria
guzizko borondatian;
bere barrurik etzan asetzen
mundua ikusi artian.

Ibillitzeko gauza etzala
munduan zear ertena,
itzegiteko ere berdin zan
ark ematen zuan pena.
Kriston Gurutzea eta azkena
zan gogoan zituen;
Bere ondora joan zanean
artuko zun atsedeña.



Benedikto XVI (2005-2013)

Benedikto amaseigarrena
bi milla eta bostean,
puska bateko bagenduala
geientsuenan ustean.
Aita Santu onek bukatu zitun
mundu ontako auziak,
eriotza baino lenagotikan
bere karguak utziak.

Beregan ziran itxaropenak
osasuntsu ikustean;
zortzi urtean irauin zun eta
kontentu onenbestean.
Orain berri bat jarri digute
Jaungoikoari graziak;
itxura danez autsiko ditu
orain arteko guziak.


Prantzisko I (2013-)

Prantzisko Lenengoa degu
jarri diguten berria,
Argentinako lurralde artan
dauka bere jatorria.
Itzan lekuan ekintzetan du
dotriñaren oiñarria;
etsaiak ere maitatzen duten
aitona agurgarria.

Berreunda irurogeita sei
oraingoakin badira,
San Pedrongandik asitakoak
eman dutenak segira.
Esan digute nolakoa dan
mundu onetako jira;
Ondo giñake beren esanak
beteko baldin balira.



EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (VI.)



2. ZATIAN.


Sarreratik datorrena.

Zer esan nai dau Indoeuropeotu-baga orrek?:

Europa, Asia ta Afrikak daukiezan izkuntzak, euren sorburuetan ezagututen dabezala, eta Euskerea eurak baiño zarragoa izanez gain, ez dakiela non asten jakon bere sorkuntza.

Gure arbasoek, Omosapiensen asieratik eraiki eben Euskerazko etxegintza au orain arte, ezer ikutu barik dagoela esan geinke zentzunezko izatasunean.

Eta leiñu edo alderraiezko erri guztiak gure lurraldetatik igaro arren, guk, gure askatasunezko demokraziaren zentzuagaz beti jokatuta eta bestien oiñarrizko eskubideak adeitasun andiz artuta, ez giñela besteak menperatzera joan, gure barnearen demokrazizko baitak ez dabelako onartzen ezergaitik be alango iñoren menpekotasunik, gure izatasun eta lurraldeak babestuten aleginduta, eta edesti guztiko alegiñ orreitan



menperatzaillaren etengabeko eraso aldiari aurka egin da, gaur zazpi lurralde txiki oneitan gure naastubageko izkuntz eder onekin geratu gara.

Euskerea orregaitik da gaur, *munduak daukan jarraibideko*⁽¹⁾ *altxor aundiena, bere oiturazko ekanduaren izatasunean, etxea nastetasun barik daukalako, Jaungoikuak ipini euskun bere legearen ardureagaz.*

Gaurko mundu onen jaurkintzak, edesti guztian sortu diran nastutasunezko ondoriotik⁽²⁾ agertzen diranak dira, ta bereala ikusten dogu: ekanduzko orekaren antolakuntzan zelan gabiltzan, *munduko giza ta errigizartearen eskubide guztiak zapaltzen.*

Kontu aundian euki bear dira, gure arbasoen azturazko lanean eginda agertzen jakuzan aztarnak, eurak erakusten dabelako gizaren edestiko asieratik, zelan

(1) Jarraibideko = modelo, ejemplo. (2) Ondoriotik = consecuencia, secuela.



joan gintzazan bereztasunezko aztura legean ikasten, gaur dakiguneraño eldu arte, eta daukien garrantzi aundia gaitik: **munduko gizatasunaren etorkizunezkoak**⁽¹⁾ **dirala izendatu**, bestela, eredu zko arloetan geratzen jakuzan zentzunezko ulerpide apurrak ezereztu egiten badira, itsas-gaitz baten kaian lotuta dagozan itsas-ontzietan orakarriak⁽²⁾ apurtzen jakozanean bezala agertuko gara, gaur zoritxarrez sortzen dan lez.

Nastubako izkuntz bateri, geure euskerea lez dagonari, indoeuropeotu babe dagola esaten jako.

Indoeuropeotu bage orren arrazoa.

Omosapiensen zabalkuntza Ekialde Txikerraren inguruetatik eta Europaren Mendebalera egin zan, Afrikatik urten eben oiñarri bateko oitura ta euren artean ulermentzeko euki eben izkuntz edo ots-itx'aren bardiñakaz, Europa erdiko lurralde zabal otzak bertan itxita.

Ekialdekoak eguraldi beroagaitik, mendabelekoak baiño 3.000 urte⁽³⁾ aurreratuagoak agertu ziran, eta Akadiako kaisertzaren Sargon menperatzailleak, ango inguruko erriak bere mendeko jaurkintzan batzeko ekintzan asi zala be bai.

Ekialdean, Sumerio izkuntza zan sorkuntzazko mintzoera, bere inguruan egongo ziran izkelkiakaz, Europako mendebalean Euskereagaz sortu zan lez.

Arik eta Sargon menpekoasunezko guda legez, ainbat erri ta mintzadar barri agertuazota, gero Europako mendebalean K.a. 753ko urtean erromatar menperatzailleak agertuta latinkumeakaz sortu zan lez.

Eta jendekuntzazkoak ez diran izkuntz ta erri-barri orreri esaten jakie indoeuropeoak dirala, euren erri-izkuntzaren sorkuntzak dakiguzelako, Sumerio ta Euskaldunen erri ta izkuntzak, berezkotasunaren azturako sorkuntzazkotan utzita.

Euskerea, Europako mendebalean zabaldu ta sendotu zan Atlant-Itsasotik Alemaniako lurraldearen erdiraiño, eta Eskoziatik kadizeraño, arik eta Ekialdeko menpekotasunetatik alde eginda K.a. 2.000 urtean Keltiarak eta jarraian beste leiñu batzuk alderrai, Alemaniako lurraldeetan agertu arte.

Euskalerriak baita lez lortuta daukazan zentzun oneko **sinismen demokratikoak**, ez dauku izten beste erri edo ta izkuntzarik menperatzera joaten, ez da ta gogoratu bez, bere sinismeneko ardatz nagusian

(1) *Etorkizunezkoak* = *Patrimonio Mundial*. (2) *Orakarriak* = *amarras, o maromas para amarrar los barcos*. (3) *K.a. 9.000 urte Ekialdean, eta K.a. 6-7.000 urte Europako mendebalean*.

zor-eskubideko ordezkartzaren arduradurak “Elburu”, eta ez dira izan naiko menperatzailearen 2.753 urtearen alegin guztiak, ainbateko zabaltasunetik Auñamendi ta Kantauriko itsasoaren lurralde txiker onetan nai inguratu arren, daukaguzan euskal itz ta azturazko oituran baitutako izatasunak ezereztu edo ta aienatzeko, sasijainkotasunezko eritzikoak gura daben lez.

Oar txiki bat emen.

Euskalerrria, Paleolitiko Neolitikoaren aitortzaille izanda, munduko jakintsuak zergaitik ez ote dabe omentzen munduaren “*Guraso ondoko*” lez ?.

Euskalerrriak euki eben lurraldeko zabaltasunetik gaurko lur txikerean agertu arte, eta ainbeste erri ta izkuntzaren ugaritasunagaz, ez dau gura esan, Europa orren neurrian aberastu danik, Jainkoak bereztutako Legean lortu bear dan jendekuntzaren ekaduzko jakiturieta, ia guztiz itxarotu egin dalako.

Europak badauko bai, Euskalerrriari zer ezkertu, bera dalako oraindiño Paleolitiko Neolitiko alditan mundu onen gizakiak lortu eben “parrebegoko jendekuntza”ren Aitorlea.

Euskereak, zelako irudiagaz itxuratzen dau Euskalerrria?:

Euskereak daukan *nortasunezko irudiagaz* zalantza barik.

Euskal erkidetzan ulermentzeko, maitetasun guztiagaz egin gendun tresneri eder au, ez da gatz bageko mesugaillu uts bat, gure artu emonetan ibilteko bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak:


- a) Jainkoari begira, Beren Legearekin euki gendun *oarmeneko*⁽¹⁾ *samurtasuna*⁽²⁾.
- b) Senitarte eta erri-maillan *maitasunezko* ulermen ona eukitea”.
- d) Gure *baitaren*⁽³⁾ bake edo orekagaitik zentzun aundiz, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, *zeaztasunaren begirunezko arduradurak ta lots aundiagaz egin genduzela.*

Oiñarrizko azpiegitura⁽⁴⁾ orreik, euskal bizitzaren babeserako emoten daukuzan indarrak, *euskereak* zentzunezko zeaztasunean daukan indarragaz osotuta, berez kokatzen gaitulako *gaitasunezko*⁽⁵⁾ *maitasunean*, bere barnean daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako, argitasuna emonaz.

Aita Santi eta Olazartar Martin´egaz Eibarrera Euskerazaintzaren batzarretara joaten nintzanean, kanpoan gengozala eta gora begira eskuagaz erakutsita *baserriak aipatuz*, baten baiño sarriago esaten eban aita Santik: *Jakintsu batzuk itandu egiten dabe, Eibarrera, nundik nora agertu ziran ainbeste injiñeru, maisu, ekonomilari eta abar.* Begitu non daukazuen lantegigintza *guzti orrein sorkuntzaren ardatzezko ikastetxea.*

Gure arbasoak, gauzak egin bitartez, ta euren arteko arremanak zentzun audiz eroanda, demokraziaren ulermen aundi bateko bizitzara eldu ziran eta sendimendu ber berori sartu eutsoelako euken izkuntzari, *euskerea* ez da edozelako tresneri uts bat.

(1) *Oarmeneko* = atención, sentido de la observación. (2) *Samurtasuna* = frescura, ternura en su composición. (3) *Baita* = conciencia. (4) *Azpiegitura* = infraestructura, subestructura. (5) *Gaitasunezko* = buenas dotes, talento.





Bera da *ama*, euskal-izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Eta etorkizunean, bere *maitasunezko zentzutik* artzen doguzan *nortasunezko izatasunak*, mundu guztiko gizarteari, *euskaldunen nortasunezko egibideak zelangoak diran berez erakusten dautsaguz*.

Mundu oneri eta bizitzari zentzuzko ulermen-bidez, emon geuntsezan adierazpeneko erantzuerak, euskal-ekintzaren bereizkotasunak dira.

Gaur egunean, munduko errigizarteari erakutsi bear dautsaguna: Euskalerrria, Ludi onek daukan *berezko erri zaarrena* dalako.

Eta zaarrena izanez gaiñ, bere *jendekuntzazko*⁽¹⁾ *jakintza, demokrazia* eder baten oiñarrituta dagoelako, nai ta espainiar eta frantzezaren menperatasunak gure gorputzan urduritasun aundiak sartu, ez dogu zetan leergaillurik ez izkillurik erakutsi bear eta gitxiago erabili.

-Leen: mundu onek gaur daukazan arazokaz, berezko legearen arrazoitasunera aokatuta dagoelako.

-Bigarren: Leergaillu orreik gure demokraziko-izatasunaren aurkakoak izanda, eurak ibilteagaz, Munduko gizarteari, beste gauza-bat, edo *ikarabidezkoak* garela erakusten dautsagu, eta Euskaldunak sekula ez gara izan alangoak gure *askatasunezko euskalerrri demokratiko onetan*.

-Irugarren: aldi baten, izkillu orreik bearezkoak izan ba ziran be, gaur jokoz kanpo geratu dira, menperatzaille fazizta oneik edesti guztian indarka erabili ondoren, eurak, alpeerezkoak eta gaurko munduaren bizitzarentzat oso okerrezkoak dirala erakutsi dabelako.

Orregaitik, mundu ta Europa onetan oraindiño, erromapeko katoliko merkantil antolamendu onetan egonda, eurak indar ta maltzurkeri geiago eukinda, izkillu orreik guk erabilterakoan, batzangotasunezko maltzur

(1) *Jendekuntzazko* = *civilización*.

joko ori arrazoitu baiño ez dogu egiten, eta beragaz: *gu gara* legeztu egiten doguna gure *euskal menpekotasuna*.

-Laugarren: ezinbesteko gogo alegiñaren indarragaz, *gure erri miñan, ainbeste zor dauztagun maitasunezko euskerea nortasunduegin bear dogu*. Len berak, *gugaz egin eban antzera*.

Euskaldunak, or, daukagulako nortasunaren izatasunezko altxor aundiarena, beste erriekaz batera, danon izatezko nortasunean, demokraziaren erantzun ederrenak emon dagiguzan.

Gaur naita jendekuntza aundian ezarrita egonda, badaukagu beste eragozpen aundibat be, betiko eta gaurko menperatzailleak bizitzarako bear doguzan tresneri ta gai mozkin guztiak euren kontrolpean eukiteko, eraso aundietan sartuta dabizelako, gaurko 2.017n urte onetan.


Osasun-bideak, aztetxe, ezi lege⁽¹⁾, lur, aize eta itsasoaren era guztietako lantoki, ta baita zartegi⁽²⁾ eta inguru guzti orreik beretu gure dabez, euren sasijainkotasunaren gurketarako.

Eta edesti guztian guda indarrez egin daben antzera, gaurko bizitza, xautzailletasunezko morroikeriaren nastezko argi bideakaz ganoragabetu egin gura dabe, euskal eta erdiugarte onen berezko errigizarteak espainiar zoraldiko nastetasun baten sartu, ta European bardiñ eginda, euren *sasinorkerizko* asmakuntzan aurrera egiteko, saiatzen dabiltz.

Gu ez gara jausi bear, mendeku edo apentzak daukan lilluramenaren⁽³⁾ sarezko txebera orreitan, Jainkoak aginduta zentzunezko gauzak egitera etorri garelako, bestela gure morroitasuna, gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabe.

Atutxa' tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an



(1) Ezi-lege = educaciòn, urbanidad. (2) Zartegi = asilo de ancianos. (3) Lilura edo Lilluramena = fascinaciòn, alucinaciòn, engaño, ofuscaciòn.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

2		6	7	4				9
			2					1 4
		5	7	8				6
			5		7			8 1
		4	8					5 3
5	3		4		2			
		6			4	9	7	
9	2				8			
8				9	5	3		6

8	7	4	1	9	5	3	2	6
9	2	3	6	7	8	1	4	5
1	6	5	3	2	4	9	7	8
5	3	1	4	8	2	6	9	7
7	4	8	9	6	1	5	3	2
6	9	2	5	3	7	4	8	1
4	5	7	8	1	9	2	6	3
3	8	9	2	5	6	7	1	4
2	1	6	7	4	3	8	5	9

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Gernikako arbola
da bedeinkatua
Euskaldunen artean
guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua

Gernikako arbola